

2019

# Euskara-teknikari eta trebatzaileen prestakuntzarako ikastaroa

## INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Irailaren 9tik 21era	<b>IRAKASLEAK</b>	Labayru Fundazioko hiru teknikari esperientziadun
<b>ORDUTEGIA</b>	Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00 eta 16:00-18:00 eta larunbatetan 09:00-13:00	<b>MATRIKULA EPEA</b>	Ekainaren 3tik uztailaren 29ra
<b>TOKIA</b>	Labayru Fundazioa Bilbo-Galdakao errepidea, 6 A Bilbo	<b>MATRIKULA NOLA EGIN</b>	944 437 684 <a href="mailto:eskola@labayru.eus">eskola@labayru.eus</a>
<b>NORENTZAT</b>	Euskara-teknikari lanetan hasi berriak direnak. Euskara-teknikari edota trebatzaile-lanetan ibili nahi dutenak.	<b>PREZIOA</b>	495 €

## PROGRAMA

### Administrazioa eta euskara

1. Trebatzailearen lana.  
Zer da eta nola antolatu trebakuntza?
2. Administrazioko idazkiak.
3. Estilo-arazoak eta ohiko gramatika-akatsak.

Lehenengo atal honetan, ikasleak trebatzaileen mundura hurbilduko ditugu. Trebakuntza zer den eta administrazioko entitate baten trebakuntza-plana nola antolatzen den ikasiko dute.

Horrez gain, trebakuntzako edukiak landuko dira: administrazioko idazkiak zelan egituratu ikasiko dute, administrazioko testuak idazteko eta itzultzeko estilo-aholkuak emango dizkiegu, eta ohiko gramatika-akatsak zuzentzeko bideak irakatsiko dizkiegu. Izan ere, trebatzaileen lana da erakunde publiko zein pribatuetakoa langileei euren egunerokotasunean erabiltzen dituzten idazkiak euskaraz zelan egituratu eta zelan idatzi irakastea.

---

## Hizkuntzaren normalizazioa

1. Euskara Planak: udal eta bestelako administrazioetan.
2. Euskara Planak enpresetan.
3. Bikain ziurtagiria.
4. Euskara-elkarteen egitekoa.
5. Diru-laguntzak.

Bigarren atalean, ikasleek euskararen erabileraren normalizaziorako dauden planak sakonean ezagutuko dituzte:

- **Udal eta bestelako administrazio publikoetako euskara planak:** alde batetik, udalaren beraren normalizazio-planak, hau da, udalak berak euskaraz (ere) funtziona dezan lortzeko planak (baita beste erakunde publikoentzat ere). Eta, bestetik, udalak herriari eta herritarrei begira egiten duen normalizazio-plana; hau da, herritarrak euskaraz bizi ahal izateko, euskarazko zerbitzuak eskaintzeko plana.
- **Enpresetako planak:** enpresa pribatuetan zein publikoetan euskararen erabileraren normalizazio-planak.

Horrez gain, bestelakoak ere ikusiko dira:

- Hizkuntza Politika Saila, Euskara eta Kultura Saila, Euskara normalizatzeko diru-laguntzak...
- Euskara-elkarteen egitekoa: euskara-elkarteen helburuak, planak, proiektuak, baliabideak... herrietan euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko.

---

## EBALUAKETA

Ikastaro bukaerarako, talde txikitan, **lan praktikoa** egin behar dute ikasleek, eta hori da, eskoletan egindakoaz gain, ebaluatzeko erabiliko dena. Ikastaro bukaeran, egiaztagiria ematen du Labayru Fundazioak.

---

## LAN-POLTSA

Normalizazio-planak gero eta indar handiagoa hartzen doaz, gero eta lan handiagoa dago arlo horretan; horregatik, gero eta euskara-teknikari eta trebatzaile gehiago behar dira, bai euskara batudunak bai bizkaieradunak. Hori dela eta, **Labayruk lan-poltsa zabalduko du ikastaroa amaitzen dutenentzat.**